

Merkataritza elektronikoak haziz jarraitu du 2012an euskal enpresetan, batez ere erosketen aldetik

Euskal enpresen %19,7k merkataritza elektronikoa egin zuen, ehuneko 2,4 puntu gehiago 2011n baino

Merkataritza elektronikoak haziz darrai Euskal AEn, bai egiten duten enpresa-portzentajea, bai zifra ekonomikoetan, Eustaten datuen arabera. Enpresen %19,7k merkataritza elektronikoa egin zuen 2012an, ehuneko 2,4 puntu gehiago 2011n baino. Sarearen edo bestelako sistema elektronikoen (e-maila, EDI, datu-truke elektronikoa) bidez sortutako negozio-bolumena 10.699,2 milioi izan zen salmentetan, eta 7.207,6 erosketetan.

Zifra horien arabera, aurreko urtearen aldean %1,6 gehitu ziren Euskal AEko enpresetan merkataritza elektronikoen bidez egindako salmentak; erosketak, berriz, %8,4 gehitu ziren.

1. taula: Merkataritza elektroniko bidez egindako erosketak eta salmentak, lurraldearen eta enplegu-geruzaren arabera

	Erosketak (*)			Salmentak (*)		
	2011	2012	%	2011	2012	%
Euskal AE	6.649,3	7.207,6	8,4	10.530,4	10.699,2	1,6
Lurralde historikoa						
Araba/Álava	938,6	1.084,6	15,6	3.699,0	3.621,0	-2,1
Bizkaia	3.642,2	3.906,3	7,3	3.671,7	3.794,6	3,3
Gipuzkoa	2.068,5	2.216,7	7,2	3.159,7	3.283,6	3,9
Enplegu-geruza						
0 - 9	2.012,7	2.082,9	3,5	1.943,7	2.067,2	6,4
≥ 10	4.636,6	5.124,7	10,5	8.586,7	8.632,0	0,5

(*) Euroak, milioikotan

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Balio absolutuetan, Bizkaia nabarmentzen da bai erosketetan, bai salmentetan. Ondoren Gipuzkoa erosketetan eta Araba salmentetan. Araban hazi dira gehien erosketak elektronikoak eta hor bakarrik murriztu dira salmentak. Establezimenduen tamainari erreparatuta, 10 enplegatu edo gehiagokoek lortu zituzten emaitza nagusiak merkataritza elektronikoen erabileran.

Euskal enpresen %19,7k merkataritza elektronikoa egin zuen, ehuneko 2,4 puntu gehiago 2011n baino. Portzentaje hau, batez ere, erosketak egiten dituzten enpresek osatzen dute, %18,0; neurri txikiagoan salmenta egileek, %4,6.

Zifra ekonomikoetan salmenta elektronikoen erosketenaren oso gainera dago, baina bide elektroniketatik erosten duten enpresak saltzen dutenak baino askoz gehiago dira.

2. taula: Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduen bilakaera %

	Establezimenduak guztira											
	2001	2002	2003	2004	2005	2006	2007	2008	2009	2010	2011	2012
Salerosketa elektronikoa	3,0	4,4	5,1	7,7	10,5	12,8	15,3	15,0	14,9	15,1	17,3	19,7
Erosketak	2,7	3,6	4,3	6,9	9,6	11,4	14,1	13,9	13,8	14,2	16,1	18
Salmentak	0,4	1,3	1,4	1,7	1,9	2,9	3,6	3,4	3,4	3,9	4,1	4,6
Erosketen gaineko (*)	9,6	11,4	17,4	15,2	15,5	18,2	20,7	22,6	24,9	28,1	30,8	33,7
Salmenten gaineko (*)	9,9	16,1	20,6	22,0	24,6	24,4	23,1	26,9	32,5	38,6	39,3	36,6
10 langile edo gehiago												
Salerosketa elektronikoa	6,4	10,0	10,9	13,6	19,5	20,4	24,0	22,2	23,7	23,1	24,9	27,7
Erosketak	5,1	8,3	8,7	11,2	17,3	17,7	21,4	19,1	20,2	20,3	21,4	23,6
Salmentak	1,8	2,8	3,7	4,2	5,1	6,4	7,8	8,0	8,0	8,5	9,8	10,4
Erosketen gaineko (*)	4,6	10,6	9,6	12,1	10,3	12,6	15,8	15,3	20,3	24,6	30,8	33,7
Salmenten gaineko (*)	12,7	13,4	15,5	15,0	19,4	21,7	31,5	28,6	34,2	38,4	40,9	42,8


(*) Merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduetan, erosketa eta salmenta guztien gaineko erosketa eta salmenta elektronikoen batez besteko %

Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI)-Enpresak

Egindako kalkuluen arabera, 33.800 inguru dira Euskal AEn merkataritza elektronikoa egiten duten establezimenduak. Establezimendu horiek bide horretatik egiten dituzten erosketek guztien %33,7 hartzen dute eta salmentek, guztien %36,6.

Zifra hauek aldatu egiten dira enpresen tamaina kontuan hartuz gero. Horrela, 10 langile edo gehiagokoen artean, %27,7k egiten dute merkataritza elektronikoa; aurreko urtearen aldean ehuneko 2,8 puntuz hazi da. Segmentu honetan ere, erosketak egiten dituztenak askoz gehiago dira, %23,6; izan ere, salmenta egileak %10,4 dira; portzentajeok ehuneko 2,2 eta 0,6 puntuz hazi dira.

1. grafikoa: 2012ko salmenta elektronikoa, erabilitako bitartekoaren arabera (%)




Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI) Enpresak

Salmenta elektronikoa horiek egiteko erabili den bitartekoari dagokionez, %43,6 posta elektronikoz (e-mail), %30,5 web orritik, eta gainerako %25,9 EDI eta beste sare batzuen bidez. Salmentak horrela egin dira : %44,9 EDI eta beste sare batzuen bidez, %31,7 e-mailez eta %23,4 web orriaren bidez.

2012an merkataritza elektronik bidez egindako salmenten bezero-motari dagokionez, guztien %83,6 beste enpresa batzuetara saldu zen (B2B deritzon merkataritza), %15,3 kontsumitzaile partikularrei (B2C) eta gainerako %1,1ek bestelako helburuak izan zituen, esaterako, administrazio publikoak (B2G).

2. grafikoa: 2012ko salmenten helburua, bezero-motaren arabera (%)



Iturria: EUSTAT. Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI) Enpresak

Euskal enpresen %70en ustez, bada zailtasunik merkataritza elektronikoan aritzeko

Euskal enpresen %70,4ren ustez, bada zailtasunik merkataritza elektronikoan aritzeko. %53,9k uste dute haien produktu eta zerbitzuak ez direla egokiak Interneten edo bestelako sare telematikoen bidez saltzeko, eta %28,4k kostu handia ikusten du, garatzeko eta mantentzeko. %20,0ren ustez, bezeroak ez daude behar bezain prestatuta bide hauek erabiltzeko; %19,3k uste du badela oraindik segurtasun-arazorik kobraketa eta ordainketetan; %18,9ren ustez plantila txikia da edo ez dago behar bezain prestatuta. %18,1ek arazo logistikoak ikusten ditu eta %17,7ren ustez merkatu hori arautzen duten legeen, entrega epeen eta edozein arazoren aurrean eskainitako bermeen gainean ziurgabetasun handia dago.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es. Tel.: 945 01 75 62

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); prentsa ohar gehiago

Euskal AEko Informazioaren gizarteari buruzko inkesta (IGI enpresak); datu-bankua